

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Kultura Departamentuak Artxibo Administratiboaren, Nafarroako Museoaren eta Nafarroako Liburutegiaren eremuak eraberrituko ditu 2018an

Antzerki Sarearekiko hitzarmenari esker, arte eszenikoen zirkuitua jarriko da martxan, zeina sareak kudeatuko baitu

Astelehena, 2018.eko otsailak 26

Kulturako Zuzendaritza Nagusiak esku hartu asmo du, 2018an, Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuaren menpeko eraikin eraikin garrantzitsuetan, hala nola Artxibo Administratiboa dagoen eraikinean, Nafarroako Museoan eta Nafarroako Liburutegian, herritarrei zerbitzu hobea emateko eta haiei kultur jarduera irisgarriago egiteko.

Kulturako Zuzendaritza Nagusiak urte honetarako dituen ekintza-planek

sormenezko eta kultur industriaren alde egiten jarraitzen dute; izan ere, beste behin egingo da 948 Merkatua, eta bultzada emango zaie arte eszenikoei. Nafarroako Antzerki Sarearekin sinatutako hitzarmen bati esker, Sareak kudeatzen duen zirkuitu bat jarriko da martxan aurrean.

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilari Ana Herrerak eta Kulturako zuzendari nagusi Fernando Pérezek ekintza-planak aurkeztu dituzte, gaur goizean, hedabideekin egindako topaketa batean. Han, bost zerbitzu-zuzendariak (Dori López, Kultur Ekintzakoa; Carlos Martínez Álava, Ondare Historikokoa; Joaquim Llansó, Artxiboak eta Dokumentu Ondarekoa; Susana Irigaray, Museoetakoa; eta Asun Maestro, Liburutegietakoa) eta Baliabide eta Garapen Estrategikoko atalburu María Camino Barcenillak urte honetarako aurreikusitako ekintzak xehatu dituzte.

Kulturako Zuzendaritza Nagusiak 2018rako dituen ekintza-planek Nafarroako Kulturako 2017-2023rako Plan Estrategikoak ezarritako ildoak jarraitzen diete. Plan Estrategiko horretan sartzen da Kulturaren Nafarroako Behatokia martxan jartzea, lehen mailako informazio-iturriak lortzeko eta sektorea balioesteko asmoz.



Kultura Departamentuak Nafarroako Museoaren eremuak eraberrituko ditu 2018an.

Kultur Ekintza

Kultur Ekintzaren Zerbitzuak zazpi programatan ardatzu du 2018rako duen estrategia: arte eszenikoak eta musikalak, ikus-entzunezkoen sektorea, arte plastikoak eta bisualak, toki-erakundeen kultur ekintza, kultur sektorearen trebakuntza eta profesionalizazioa, herri-kultura, eta Nafarroako sormenezko eta kultur industriak komertzializatzea eta sustatzea.

Urte honetarako aurreikusitako ekintzen artean, nabarmentzekoa da, Antzerkia eta Dantza Bultzatzeko Planaren baitan, Nafarroako Antzerki Sarearekiko hitzarmena, Sareak kudeatuko duen arte eszenikoetako zirkuitu bat martxan jartzeko.

Halaber, Nafarroako Ikus Entzunezkoen Sektoreari Laguntzeko Programako berritasun gisa, 2018an, deialdi bakar batean elkartuko dira garapenera, fikziozko, dokumentuzko edo animaziozko film luzeen proiektuak ekoiztera eta film laburrak ekoiztera bideratutako laguntzak.

2018an, Nafarroako toki-erakundeen Kultur Ekintzari Laguntzeko Programak berriro izango ditu oinarriztat bi laguntza-deialdi, eta aipagarria da, orobat, Landarte programa, 2017an abiarazia landa-eremuko herrietan herritarren eta artisten arteko baterako proiektuak sustatzeko.

Nafarroako sormenezko eta kultur industriak komertzializatzen eta sustatzen laguntzeko programari dagokionez, ekintzarik aipagarriena 948 Merkatua da —2018an, azaroaren 21ean, 22an eta 23an izango da—.

Ondare historikoa

Ondare Historikoaren arloan, 2018ko ekintza-plana lau lan-ildotan ardatzen da: erregistroa eta inbentarioa, kontserbazioa (babesa/ikerketa), zaharberritzea eta hedapena/dinamizazioa.

Kontserbazioaren eta ikerketaren arloan, aurtengo berezitasunak arkeologiaren urteko plana eta beirate-plana dira.

Zaharberritze-lanen barruan, ekintza aipagarriak egingo dira arkitektura-ondarearen arloan; izan ere, aurreikusita dago Iruritako Dorrean, Leitzako Ibero dorrean, Erriberriko gazteluan, Ablitaseko gazteluan eta Cortesko gazteluan esku hartzea.

Ondare industrialean, berriz, Orbaitzetako arma-fabrikari esku hartzea aurreikusita dago.

Nabarmentzekoa da, halaber, aurreikusita dagoela 2018an Iruñeko eta Tuterako katedraletan esku hartzea.

Horrez gain, esku hartuko da kultur intereseko beste ondasun batzuetan —hietetako batzuk Nafarroako Gobernuaren jabetzekoak dira—; adibidez, Iratxeko abade-elizaren barrualdea zaharberritzeko lehenengo fasea egingo da, igogailu bat eraikiko da Lizarrako Errege Jauregian, eta esku-hartzeak aurreikusten dira Leireko Monasterioan. Esku hartuko da, halaber, toki-erakundeen jabetzeko beste ondasun batzuetan ere, hala nola Caparrosoko Kristoaren hondarretako dorrean.

Ondare arkeologikoan, esku-hartzeak aurreikusita daude Ablitasen, Los Cascajosan, Sakanako galtzada erromatarrean eta Eugiko arma-fabrikari.

Era berean, kontserbazio- eta hedapen-lanak aurreikusten dira Alkerdiko leizeetan, Iruñeko Luis Hutin gazteluko aurkikuntzen inguruan eta Mendabiako El Castillar aztarnategian.

Artxiboak

Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuaren Ekintza Planean hiru lan-ildo nagusitzen dira: artxiboak herritarrentzako irekiak izatea, zerbitzuaren konpromisoa eta hedapenerako orientazio erabakitzailea.

Ildo horretan, 2018. urtean, Musikaren eta Arte Eszenikoen Nafarroako Artxiboaren aldeko apustua egiten jarraituko da; horrela, musika-funtsen inguruko metodologia ezarriko da, dantza eta antzerki artxiboen prestakuntzarako metodologia ezarriko da, eta Nafarroarako interesgarriak diren funtsen

inbentarioa sakonduko da. Aldi berean, ikerketarako laguntza-deialdia egingo da.

Bestalde, Administrazioaren Artxiboa kokatzen den eraikina berritzea aurreikusten da, bertako langileek nahiz erabiltzaileek espazio egokia izan dezaten.

Dokumentu-ondarea hedatzeko eta horri balioa emateko estrategiak 2018rako ekintza-planean nabarmen agertzen dira, eta Fabrikak proiektuaren aldeko apustua egingo da: paisaia berriak, begirada berriak, Nafarroan jarduera industrialarekin zerikusia duten dokumentuei balioa ematearren.

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak aldizkako erakusketak egiten jarraituko du, eta, hedapenari dagokionean, fototekan aurreikusitako lana ere nabarmendu behar da, aurten herritarren eskura jarri nahi baita 1960. urte aurreko argazki historiko guztia, deskribatuta eta digitalizatuta.

Baliabide eta Garapen Estrategikoaren Atala

Kulturaren Plan Estrategikoarekin bat etorritik, 2018. urteari begira, Kulturaren Nafarroako Behatokia sortzea funtsezkoa izango da. Horren bitartez, kultura eta sormen mailako errealitatea oso-osorik ezagutu nahi da, lehen mailako informazio-iturriak lortu eta kulturari balioa eman enplegu kultural, berrikuntza eta aztarnategi sortzaile bezala.

Garapen Estrategikoari erreparatuta, 2018an aipatzekoa da baita ere Eskubide Kulturalen Foru Legearen proiektua onartzea, Parlamentura igorri nahi dena, onar dezan.

Aurtengo urterako nabarmendu daitezkeen bestelako ekintzen artean aurkitzen dira Sormen Fabrikak, erreferente bihurtu nahi direnak, honako hauetan oinarritutako eduki berriak sortzeko: dibertsitatea, garapen artistikoa, kalitatea eta berrikuntza arteetan, kulturaren eta sormenean.

Halaber, batera eta norberak kudeatutako sormen-espazio ereduak lantzen jarraituko da, Espazio Sortzaileen eta Kulturalen inguruan aurrez egindako azterketa erreferente nagusi bezala hartuta.

Era berean, 2018. urtean nabarmentzekoa da Nafarroa Kultura think tank esperientzia kulturalen foroa; prestakuntza-tailerrak eskainiko zaizkie artista eta agente kulturaleri beren gaitasunak hobetzeko. Horrez gain, industria kulturalen eta sortzaileen esparrua aipatu behar da.

Museoak

Museoen 2018ko Planean ondorengoak jasotzen dira: foru titulartasuneko museoak kudeatzea; museoeko bildumak kontserbatzea, ikertzea, erakustea eta hedatzea sustatzea; eta Nafarroako museo-sektorearen plangintza eta aholkularitza. Oinarri hori kontuan hartuta, aurten Nafarroako Museoeko bildumak DOMUS-ean digitalizatzen jarraituko da.

Bestalde, Nafarroako Museoeko erakusketa iraunkorra eguneratu da: "Arte guztia garaikidea da"; asmoa da arte garaikidea berritzea Museoeko erakusketa iraunkorrean, pieza, irakurketa eta eduki berriak sartuta. Halaber, Karlismoaren Museoeko erakusketa iraunkorra berriro eta handituko da.

Nafarroako Museoari dagokionez, egoitza hobetzeko eta egokitzeko lanen bitartez, leku atseginagoa, egungoagoa eta nabariagoa lortu nahi da, museoaren eraginkortasuna eta ingurumen-baldintzak mantentzea eta hobetzea lortzearekin batera.

Bestalde, museoaren eremu honetan, 2018an itxiko da aurre-inbentarioa baliozkotzeko prozesua, berrikuspen zientifikoarekin; era berean, Nafarroako Ondare Kultural Materiagabea osatzen duten ondasunen inbentarioa egiteko lehen faseari hasiera emango zaio.

Liburutegiak

Liburutegien zerbitzuak 2018an aintzat hartu nahi ditu batez ere errealitate txikienak, hots, landa-ingurunekeko liburutegiak eta, handiena, Nafarroako Liburutegia.

Landa-inguruneetan sarearen eragina handitzeko helburuarekin, 2018an azterketa bat egin nahi da landa-ingurunekeko liburutegi eta kultur zerbitzuen gainean. Ildo berean, ibilgailu bat erostea aurreikusten da Aurizberrin liburutegi-zerbitzua zabaltzeko. Halaber, katalogoan bildumak sartzea aurreikusten da, epe

ertainera liburutegiko funtsa guztiak ikus daitezzen Internet bidez sartzeko aukera emango duen funts bakar batean, erabiltzeko gaitasuna era esponentzialean gehituz. Ildo horretan, liburutegi arteko mailegua finkatu eta hedatuko da.

Lanerako beste ildoetariko bat Nafarroako Liburutegian aurreikusita dauden jardueretan oinarrituko da; izan ere, espazioak egokitu eta bildumak dibertsifikatu nahi dira, jardueren plana jorratzearekin batera. Ondare-aberastasunari dagokionez, Nafarroako liburutegi digitala antolatuko da, eta ondare bibliografikoaren katalogazioa eta ondare filmografikoaren antolaketa burutuko dira.